

OINARRIZKO MAILA – ATAZA EREDUAK

A-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

- Irakurri bezeroen eta lau jatetxeen informazioa. (Iturria: www.bilbao.net)
- Erantzun-orrian markatu bezeroek zein jatetxe aukeratuko duten, adibidean bezala.
- **Bi** esaldi soberan daude.

0.	Eguraldi ona badago, kanpoan jan nahi dute.	A
1.	Lan bazkaria dute eta bazkaldu bitartean bulegokoei e-posta bidali behar diete.	
2.	Igandean bazkaltzeko elkartuko dira.	
3.	BILBAOCARDEk eskaintzen dien aukera merkeena aprobetxatu nahi dute.	
4.	Pintxo ospetsuak jateko asmoz datoz Bilbora.	
5.	Txingarretan erretako jakiak atsegin dituzte.	
6.	Autoa uzteko aparkalekua behar dute.	
7.	Janari tradizionala, betikoa eta etxekoa dastatu nahi dute.	
8.	Geugaz Jan elkartekoa den jatetxea ezagutuko dute.	

<p>A Artetxe Erretegia</p> <p>Harri gainean egindako txuleta eta arrainak ditu berezitasunen artean. Udaberrian eta udan Bilboko ikuspegi ederra duen mahatsondo azpiko terrazan jaten da.</p> <p>Ordutegia: astelehenetik larunbatera. Igande eta jaiegunetan, itxita.</p> <p>BILBAOCARD BEHERAPENA: astelehen eta asteartean, %5.</p>	<p>B Zortziko Jatetxea</p> <p>Daniel García, 80. hamarkadan sukaldaritzaren modernoa goitik behera aldatu zuena, egilearen sukaldaritzaren izenekoaren maisuetariko bat da zalantzarik gabe, eta bere etxea gastronomiaren gunea da, derrigorrez bertan egon beharrekoa. Bere sukaldaritzak etengabeko ikerketa eta sorkuntza lana bizi du, talde gazte batek lagunduta.</p> <p>Ordutegia: 13:00etatik 15:30era eta 20:00etatik 23:00etara. Igandeetan eta astelehen gauetan itxita.</p> <p>BILBAOCARD BEHERAPENA: %12 dastatzeko menuan.</p>
<p>C Mainer Jatetxea</p> <p>Bilboko erdigunean kokatutako jatetxea, famili giroa eta zerbitzu bikaina ditu. Arrainak, itsaskiak eta garaiko platerak ditu bereizgarritasunen artean. Haztegi propioa du. Eguneko menuak eta pintxo mota ezberdin ugari ere eskaintzen ditu barran.</p> <p>Ordutegia: astelehenetik larunbatera: 07:00etatik 01:00etara. Igandeetan itxita.</p> <p>BILBAOCARD BEHERAPENA: % 5 kartan.</p>	<p>D Zero Jatetxea</p> <p>Lerro minimalista eta egilearen sukaldaritzaren dituen jatetxea. Enpresa menuak eta lan-eremuak ditu ikus-entzunezko baliabideekin eta interneteko konexioarekin. Zabalgunerdiaren kokatua, Guggenheim-etik eta Euskalduna Jauregitik hurbil. Geugaz Jan-eko (Bizkaiko Sukaldarien Elkartearen) kidea.</p> <p>Ordutegia: astelehenetik larunbatera: 13:00etatik 16:00etara, eta 21:00etatik 24:00etara. Igandeetan itxita.</p> <p>BILBAOCARD BEHERAPENA: %10 karta.</p>

B-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

- Irakurri testua.
- Jarraian adibide bat eta 6 galdera dituzu. Galdera bakoitzak 3 aukera ditu. Erantzun zuzena (a, b edo c) **erantzun-orrian** markatu, adibidean bezala.
- Konprobatu erantzunak ondo markatu dituzula.

EUROAREKIN DENA GARESTIAGO

Duela bost urtetik, euroarekin egiten ditugu erosketak, 2002ko urtarrilaren 1ean iritsi zen txanpon berria gure artera, eta geroztik, libera eta pezeta ahaztu ditugu eta ohitu egin gara euroarekin. Lehen ez bezala, gaur egun txanpon bera erabil dezakegu Euskal Herri osoan. Horrez gainera, Europako hainbat herritan da erabilgarri: Alemania, Italia, Frantzia, Espainia, Portugal... Abantailak besterik ez omen ditu euroak... Baita zera ere!

Denok ohartu gara azken urteotan zenbait produktu izugarri garestitu direla. Ziur asko, ekonomiaren beste faktore batzuek eragina izan dute; petrolioaren gero eta garestiago izateak, adibidez. Baina argi dago euroa aitzakia ezinhobearen dela prezio altuagoak jartzeko.

Oso esanguratsua da, adibidez, *Berria* egunkariak urtarrilean egindako azterketa: Hego Euskal Herrian, oinarritzko dozena bat produktu hartu (ogia, arrautzak, esnea, oliba olio, konpresak, xanpua...) eta duela bost urteko prezioak gaur egungoekin alderatu zituzten. Ondorioa, garbia: bost urtetan, saski horren prezioa ia bikoiztu egin da. Esne kartoi batek, esaterako, 0,43 euro balio zuen 2002an, eta 0,90, 2007an.

Azterketa ez da zientifikoa, baina adierazgarria bai, ordea. Eta herritar gehienok antzeko irudipena dugu. Baita kontsumitzaile elkarteek ere. Lourdes Rodrigo Donostiako Kontsumitzaileen Bulegoko arduradunaren arabera, euroak eragin nabarmena izan du garestitze horretan: *“Batez ere, ogiaren igoserarekin, jende asko kexatu zen. Aisialdian gastuak murriztu ditzakegu, baina jan egunero jan behar dugu, eta prezioak izugarri igo dira”*.

Kontua da janariaren eta beste produktu batzuen prezioa horrenbeste igo bada, neurri berean igo ote diren soldatak. Argi dago ezetz. Bost urteotan bikoiztu, behintzat, ez dira bikoiztu. Hortxe, arazoa.

GAZTETXULO, 2007/03/08

0. Orain dela bost urte...

- a) *desagertu zen euroa.*
- b) *entzun genuen “euro” hitza lehen aldiz.*
- c) *hasi ginen euroa erabiltzen.*

1. Euroa iritsi eta...

- a) *libera eta pezetarekin jarraitu dugu.*
- b) *ez dugu ez pezeta ez libera erabiltzen.*
- c) *txanpon guztiak erabiltzen ohitu gara.*

2. Idazlearen ustez euroarekin...

- a) *bakarrik ditugu abantailak.*
- b) *Europa osoan ordain dezakegu.*
- c) *desabantailak ere badauzkagu.*

3. Euroak prezioak...

- a) *berdin mantentzen ditu.*
- b) *garestitu egin ditu.*
- c) *merkatu egin ditu.*

4. 2002ko produktuak...

- a) *aurtengoak bezain garestiak ziren.*
- b) *oraindik pezetatik ordaintzen ziren.*
- c) *ez ziren oraingoak bezain garestiak.*

5. Herritarrak kexatu egin dira...

- a) *aisialdirako dirurik ez dute eta.*
- b) *azterketaren emaitzak direla eta.*
- c) *oinarritzko prezioak igo dira eta.*

6. Soldatak...

- a) *oinarritzko produktuak baino gutxiago igo dira.*
- b) *oraindik ez dira aldatu.*
- c) *produktuak beste igo dira.*

C-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

- Testuko hutsuneak bete. Horretarako aukeratu hitz egokiak beheko koadroan. Kontuan eduki **bi** hitz soberan daudela.
- Adibidean bezala, erantzun-orrian ipini hitzaren ondoan hutsunearen zenbakia. Soberan badago ez ipini ezer.
- Konprobatu erantzunak ondo markatu dituzula.

GIZON BATEK MEKANIKARIA SALATU DU, SEI URTE IGARO ETA GERO AUTOA KONPONDU EZ DIOLAKO

Sei urte 0 auto bat konpontzen Argentinako mekanikari batek eta oraindik ez du 1 . Zehazki, 2314 egun daramatza FIAT 600 markako 2 tailerrean.

2000ko abuztuan eraman zuen jabeak autoa tailerrera, berriz margotu eta txapa konpontzera. Kotxearen 3 gaur egun 73 urte ditu eta erretiratuta dago, baina 4 liburu-saltzailea zen eta autoa lan egiteko erabiltzen zuen. Autoak oso 5 txarra zuen eta, horregatik, ibilgailua konpontzea erabaki zuen zozketa batean 6 diruarekin.

Tailerrera eraman zuen autoa, eta 7 . Tailerreko ugazabak aitzakiak eta aitzakiak jarri dizkio urte luze horietan eta berak itxaron egin du, auzitegian ez amaitzeko, baina, 8 , salaketa jarri behar izan du.

Gizona jubilatuta egin da, Argentinak sei presidente izan ditu eta munduko bi futbol txapelketa jokatu dira. A zer pazientzia izan duen gizonak!

Eitb24 - 2006/07/27

AMAITU	AZKENEAN	DARAMATZA	0	ESAN	
IBILGAILUAK	IRABAZITAKO	ITXURA		JABEAK	
LEHEN	NAHI	ORAIN ARTE			

A-1 ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

“HAMAR URTEKO FUTBOLARIA FITXATU DUTE”, Euskadi Irratia, 2003/11/18.

Hamar urteko futbolari bati buruzko informazioa entzungo duzu.

- 30 segundo dituzu beheko esaldiak irakurtzeko.
- Entzun grabazioa.
- **Erantzun-orrian** markatu esaldi horiek egia ala gezurra diren, adibidean bezala.
- Berriro entzungo duzu.
- Konprobatu erantzunak ondo markatu dituzula.

		EGIA	GEZURRA
0.	Mozart talentu handiko haur bakarra izan zen.		<input checked="" type="checkbox"/>
1.	Mozartek txikitan idatzi zuen bere lehen kontzertua.		
2.	Gaur egungo talentudunak futbolari esker egiten dira ezagun.		
3.	Futbolari gazteak Vienatik alde egin behar izan du.		
4.	Bera bezain gazteak diren futbolariekin jolasten da Stuttgarten.		
5.	Ordezkeriak gaztearen ikasketez ere arduratzen dira.		
6.	Lehen partidari golak sartzea lortu zuen.		

B-1 ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

ERIZAINAREN KONTSULTAN, 2006/12/05

Erizainaren eta gaixoaren arteko elkarrizketa entzungo duzu

- 30 segundo dituzu beheko esaldiak irakurtzeko.
- Entzun grabazioa.
- **Erantzun-orrian** markatu erantzun zuzena (a, b edo c), adibidean bezala.
- Berririo entzungo duzu.
- Konprobatu erantzunak ondo markatu dituzula.

0. Gaur _____gaixoa erizainaren kontsultara joan da.

- arratsaldean*
- eguerdian*
- goizean*

1. Ebakuntza egin ondoren zauriak...

- atera zaizkio.
- infektatu zaizkio.
- sendatu behar ditu.

2. Zauriak garbitzeko lehendabizi ...

- gasak jarri dizkio.
- ur eta xaboiz garbitu dizkio.
- zauriak lehortu dizkio.

3. Sendagileak...

- bihar itzultzeko agindu dio.
- etxera joateko baimena eman dio.
- ere ikusi behar ditu zauriak.

4. Hemendik aurrera zauriak garbitzeko...

- egunero joango erizainarengana.
- erizainaren aholkuak kontuan hartuko ditu.
- medikuak agindu dion bezala egingo du.

5. Gaixoak tentsioa...

- batzuetan baxu izaten du.
- gaur baxu samar dauka.
- kontrolatu behar izaten du.

6. Datorren astean...

- medikuak ikusiko du.
- oraindik etxean egon beharko du.
- zauriak kontsultan garbitu beharko dizkiote.

A-1 IDATZIZKO ADIERAZPENA: E-POSTA IDAZTEA

- Saiatu letra garbia egiten
- Idazteko boligrafoa erabili

• ***IDATZI E-POSTA ZURE LAGUNARI.***

• **Zure e-postak gutxi gorabehera 40 hitz izan behar ditu.**

Atzo lagun on baten urtebetetzea izan zen, baina ahaztu egin zenuen. Badakizu berarentzat oso garrantzitsua dela egun hori. Idatzi e-posta zorionak emateko eta barkamena eskatzeko.

B-1 IDATZIZKO ADIERAZPENA: GUTUNAK IDAZTEA

- **ERANTZUN ZURE LAGUN AGURAINDARRAK BIDALI DIZUN GUTUNARI.**
- **Zure gutunak 110 hitz izan behar ditu gutxi gorabehera.**

Agurainen, 2007ko maiatzaren 10ean

Kaixo Ane,

Zer moduz zabilta Tolosa aldean? Londresetik etorri zinenetik ez dugu elkar ikusi eta irrikan nago zurekin egoteko. Badakit Londresekoa oso esperientzia interesgarria izan zela zuretzat. Nik ere hara joateko asmoa dut nire ingelesa hobetzeko eta, horregatik, informazioa eskatu nahi dizut, mesedez, kontatu: non bizi izan zinen? norekin? lanik egin zenuen? non? nola lortu zenuen lana? klaseetara joaten zinen? garestia zen hango bizimodua? lagunik ezagutu zenuen? Galdera asko direla esango duzu, baina joan baino lehen hori guztia jakin nahi dut zer prestatu behar dudan erabakitzeko. Mila esker zure laguntzagatik. Musu bat eta laster arte.

**Garazi**

ZUZENKETAK

A-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

0	1	2	3	4	5	6	7	8
A	D	X	B	C	A	X	C	D

B-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

0	1	2	3	4	5	6
a	a	a	a	a	a	X
b	X	b	X	b	b	b
X	c	X	c	X	X	c

C-1 IRAKURRITAKOAREN ULERMENA

AMAITU	1	AZKENEAN	8	DARAMATZA	0	ESAN	X
IBILGAILUAK	2	IRABAZITAKO	6	ITXURA	5	JABEAK	3
LEHEN	4	NAHI	X	ORAIN ARTE	7		

A-1 ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

	EGIA	GEZURRA
0.		X
1.	X	
2.	X	
3.	X	
4.		X
5.		X
6.	X	

B-1 ENTZUNDAKOAREN ULERMENA

	A	B	C
0.	X		
1.			X
2.		X	
3.		X	
4.		X	
5.	X		
6.	X		